

UGT, CCOO eta CEN diru publikoz finantzatzea berreskuratzen duen aurrekontu antisoziala

2022ko Nafarroako Aurrekontu Proiektuaren eta Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko Aurrekontu Akordioaren balorazioa

2022ko azaroaren 22a



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

0.- Sarrera.....	3
1.- Gobernu honen hirugarren aurrekontua gizartearen partaidetzarik gabe onartuko da.....	4
2.- Aurrekontu eskasa, zor publikoak, itzalpeko bidesariak eta Europako funtsen baldintzek baldintzatua.....	4
2.1. Hazten ez den aurrekontu eskasa.....	4
2.2.- Europako funtsetatik 161 milioi sartzan dira murrizketa eta erreforma antisozialak egitearen truke.....	4
2.3. Zor publikoa eta itzalpeko bidesariak %25 igo dira, eta eguneko 1,7 milioi ordainduko beharko dira.....	5
2.4. Osasunean eta hezkuntzan 800 milioi euro gehiago inbertitu beharko litzateke Europako gastuaren batezbestekoa berdintzeko.....	6
2.5. Errenta Bermatuak pisua galtzen jarraitzen du LGSarekiko.....	8
3.- EH Bilduren akordioak ez du aldatzen Gobernuaren aurrekontu antisozialaren joera.....	9
3.1. Aurrekontuaren %0,25 soilik baldintzatuko da, kopuru osoa bere gain hartzearen truke.....	9
3.2. Norbera gustura dagoen irakurketa, errealtatearekin bat ez datorrena.....	9
3.3. Onura fiskalen azterketa.....	9
3.4. Madrilen egiten denaren jarraipena enplegu publikoan.....	10
3.5. Kontratazio Publikorako Batzordea.....	10
3.6. 0-3 urteko zikloa.....	10
3.7. Pentsioak jasotzen dituzten pertsonen gizarte-babesa.....	10
3.8. Euskara sustatzeko laguntzak.....	10
4.- Erreforma fiskalari uko egiten zaio, eta horrek murrizketak ekarriko ditu.....	10
5.- UGT, CCOO eta CEN diru publikoz finantzatzea jasotzen duen aurrekontua.....	11
6.- Aurrekontuen Lege Proiektuak Guardia Zibilak Foruzaingoan sartzeko pasabidea aurreikusten du	12
7.- 800 plaza itundu gehiago egoitzetan eta egunetan.....	13
8.- Ondorioak.....	13

0.- Sarrera

2022ko Nafarroako Aurrekontua Nafarroako Gobernu honek aurkezten duen hirugarrena da. Legegintzaldi honetan onartutako gainerako aurrekontuek bezala, ez du inolako aldaketa sozialik suposatzen, eta gastu sozialean austeritatea ezartzen duen aurrekontu-politikaren ildoari eusten dio, dauden beharrak ase gabe. Gizartearen aurkako austeritate-politikek erabat baldintzatutako aurrekontua da. Irailaren 9an Nafarroako Gobernuak Estatuarekin %-0,9ko defizitaren erreferentzia tasa adostu zuen, guztiz ulertezina den zerbait 2022rako zerga-arauak Europar Batasun osorako etenda dagoenean (Kongresuak ere horrela berretsita).

Gainera, aurreproiektuak UGTren, CCOOen eta CENen finantzaketa berreskuratzen du Enplegu Planerako partiden bidez, eta hori ez zen gertatzen Miguel Sanz eta Yolanda Barcinaren garaietatik.

Aurreproiektu hau, Parlamentuan aurkeztu ondoren Foru Lege Proiektua dena, azaroaren 6an EH Bildurekin egindako itunari esker onartuko da.

1.- Gobernu honen hirugarren aurrekontua gizaratearen partaidetzarik gabe onartuko da

Nafarroako Gobernuak 2022ko Nafarroako Aurrekontuen Aurreproiektua inolako parte-hartze sozialik gabe egin du. Etsigarria da aurrekontu eta zerga politika egiteko Gobernu honek partaidetza sozial eta sindikal zabala bermatzeko interesik ez duela ikustea.

2.- Aurrekontu eskasa, zor publikoak, itzalpeko bidesariak eta Europako funtsen baldintzek baldintzatua

2.1. Hazten ez den aurrekontu eskasa

2022rako Nafarroako Gobernuak prestatutako Aurrekontu Proiektuak 5.273,1 milioi euroko gastua aurreikusten du. Gastuaren bilakaerak erakusten duenez, 2022rako Aurrekontu Proiektuak 2021eko aurrekontu finkatuak baino 246,9 milioi gehiago gastatzea aurreikusten du (behin betiko gastuaren aurreikuspena hirugarren hiruhilekoan), %4,9 gehiago.

Aurrekontuak BPGan duen partaidetzari dagokionez, 2022rako aurreikusitako gastua %23,1ekoa izango dela aurreikusten da, 2021erako aurreikusitako berbera. Ekitaldi honetan ez bezala, aurrekontuak BPGrekiko duen partaidetza handitu egin da azken urteetan, batez ere 2019tik 2020ra, BPGaren beherakadagatik aurrekontua handitzeagatik baino gehiago.

Nafarroako Gobernuaren gastu publikoa (milioi euro eta BPGaren %). 2010-2022 (2021 gastu finkatua III. hiruhilekora eta 2022 Aurrekontu-proiektua)

2010:	2015	2020	2021	2022
3.979,0	3.954,8	4.587,0	5.026,2	5.273,1
% 21,3	% 20,6	% 22,5	% 23,1	% 23,1

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

2.2.- Europako funtsetatik 161 milioi sartzen dira murrizketa eta erreforma antisozialak egitearen truke

Kontuan hartu behar da aurrekontuaren igoeraren zati bat Next Generation funts europarretatik datorrela. Zehazki, proiektuak funts horietatik 161,9 milioi euro jasotzen ditu, 73,3 milioi REACT programatik eta 88,6 milioi Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik. Gainera, Nafarroako Gobernuak adierazi du kopuru hori handitu egin litekeela Espainiako Gobernuak Nafarroari Europako funts gehiago ematen badizkio.

Beraz, 2022ko aurrekontua ez da handitu neurri haundi batean Nafarroako Gobernuak diru-bilketarako (eta, beraz, gasturako) duen gaitasuna handitu delako, baizik eta funts batzuk jasotzen ari delako. Funts horiek, batetik, zor publikoa bezala itzuli beharko dira neurri handi batean, eta, bestetik, erreforma antisozial larriak dakartzate pentsioen edo lan-erreformen arloan (Pedro Sánchezen Gobernuaren eta Batasunaren arteko akordioan egiazta daitekeen bezala).

2.3. Zor publikoa eta itzalpeko bidesariak %25 igo dira, eta eguneko 1,7 milioi ordainduko beharko dira

2022an, Nafarroako Gobernuak 520,7 milioi euro (BPGaren %2,3aren baliokidea) ordainduko ditu zor publikoan. Hau da, aurrekontu osoaren %9,9 zor publikoa eta haren interes eta gastuak ordaintzera joango da. Gizarte Eskubideen Departamentuaren gastu osoa adiana ia-ia (529 milioi euro). 2008tik 2022ra, 4.652,7 milioi euro ordainduko dira zor publikoan.

Hala ere, 2021. urtearen amaieran Nafarroako zor bizia 3.492,7 milioi eurokoa izango da, kopuru hori urtez urte handitzen joan eta gero. 2008az geroztik, Nafarroako zor bizia 868 milioi eurotik 3.492,7 milioi eurora igaro da, ia 3 aldiz gehiago. Nafarroako Gobernuak 2022a 3.691,8 milioi euroko zorrarekin bukatzea aurreikusten du, aurreko urtean baino 199,1 milioi euro gehiago.

Horri itzalpeko bidesaria gehitu behar zaio, zor publikoarekin antz handia duen kanona. Obra handiak ordaintzeko erabili den mekanismoa da (Nafarroako Ubidea eta haren lehen fasea handitzeko eta A-21 eta A12 autobideak egiteko). Obraren eraikuntza eta finantzaketa enpresa pribatu batek egitean datza, eta Gobernuak obra hori erabiltzeagatik ordaintzean. Horrela, administrazioak epe laburreko zorpetzea ekiditen du eta kontuak itxuratzen ditu, nahiz eta epe luzera gastua askoz handiagoa izan.

2022rako Aurrekontu Proiektuak aurreikusten du itzalpeko bidesarian 102,9 milioi euro ordaintzea, 2020ko gastu finkatua baino 30,5 milioi gehiago (nabarmen jaitsi zen pandemia eta konfinamenduagatik obra horien erabilera). 2008az geroztik, gastu hori 61,3 milioi euro handitu da, eta urtez urte handitzen jarraitzen du, Comptos Ganberak ohartarazi izan duen moduan.

Zor publikoa eta itzalpeko bidesaria batzen badira, 2022an 623,6 milioi euro gastatuko dira, aurrekontuaren %11,8. Beste era batera ikusita, 1,7 milioi euro gastatuko dira eguneko zor publikoa eta bidesaria ordaintzen.

Oso ezkagarria da zor publikoaren bilakaera. 2008tik (itzalpeko bidesariak hasi zirenetik), zorraren eta itzalpeko bidesarien ordainketa %794,7 igo da, eta aurrekontuaren %1,6 izatetik %11,8 izatera igaro da. Azken urteko bilakaera ere kezkarria da, zorraren ordainketa eta itzalpeko bidesariena 124,9 milioi euro igo da, %25. Horrek suposatzen du 2021etik 2022rako aurrekontuaren igoeraren erdia baino gehiago zorraren eta itzalpeko bidesarien hazkundera ordaintzera bideratuko dela.

Azken finean, zor publikoaren eta itzalpeko bidesarien gastua deskontatuz gero, aurrekontua 2021etik 2022ra 122 milioi euro igo da, %2,7 bakarrik. Hori da, egiazki, Nafarroako Gobernuari dagozkion eskumenetarako aurrekontuaren igoera. Horrek, egiazki, pisua galtzea dakar BPGrekiko; izan ere, 2021eko aurrekontu finkatua, zorra eta itzalpeko bidesariak kenduta, %20,8ren parekoa da, eta 2022koa %20,4koa.

Zor publikoko gastu osoa eta itzaleko bidesaria (milioi euro) 2008-2022

	2008	2010:	2015	2021	2022
Zor publikoa	28,2	144,1	414,3	426,3	520,7
Itzaleko bidesaria	41,6	43,9	68,2	72,4	102,9
Guztira	69,7	188,1	482,5	498,7	623,6
Gastua / aurrekontua	4.402,5	4.301,3	3.965,0	5.026,2	5.273,1
Zorrik eta bidesaririk gabeko gastua	4.332,8	4.113,2	3.482,5	4.527,5	4.649,5

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

Aipatu beharrekoa da ere Estatuari egin beharreko ekarpena. 2022an 573 milioi eurokoa izango dela aurreikusten da.

Estatuarentzako ekarpena 5 urtean behin egiten diren negoziazioen arabera kalkulatzeko den partida da. Ordainketa erabat opakua da, ez baita inon zehazten benetan zer ari den ordaintzen eta nola kalkulatzeko den. Gainera, kontuan hartu behar da ekarpen horretan Estatuaren zor publikoaren zati bat ere ordaintzen ari dela, eta, beraz, zor publikoko gastua are handiagoa dela nafarrentzat lehen aipatutako 623,6 milioiak baino.

Horrenbestez, Nafarroako aurrekontua zor publikoak, itzalpeko bidesariak eta Estatuari egindako ekarpenak baldintzatzen dute erabat.

2.4. Osasunean eta hezkuntzan 800 milioi euro gehiago inbertitu beharko litzateke Europako gastuaren batezbestekoa berdintzeko

Osasun Departamentuak 1.261 milioi euroko aurrekontua izango du 2022an, Aurrekontu Proiektuaren arabera, 2021eko gastu finkatua baino 1,5 milioi euro gutxiago. Aurrekontu hori 2022rako aurreikusitako BPGaren %5,5en baliokidea da, 2021ean baino 0,3 puntu gutxiago.

Bilakaerak erakusten duenez, gastua 224,9 milioi euro handitu da 2010etik. Hala ere, BPGrekiko gastua aztertuz gero, osasun-gastua BPGaren %5,6 izatetik %5,5 izatera igaro da. 2022an, 22,8 milioi euro gehiago bideratu beharko lirateke osasunerako, 2010eko BPGaren partaidetza berdintzeko, eta 68,5 milioi gehiago 2021eko gastua berdintzeko.

Osasun-gastua (milioi euro eta BPGaren %) 2010-2022

	2010:	2015	2021	2022
Milioi euro	1.036,1	963,8	1.265,5	1.261,0
% / BPG	5,6 %	5,1 %	5,8 %	5,5 %

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

Osasunera bideratutako BPGaren ehunekoa murriztea ulergaitza da pandemian zehar bizitako guztiaren ondoren. Inoiz baino beharrezkoagoa da osasunean gehiago inbertitzea, besteak beste, oinarritzko laguntzako kolapsoari, itxaron-zerrenden egoerari edo Nafarroan laguntza psikologikoan dauden espezialisten gabeziari aurre egiteko.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuaren 2022ko aurrekontua 792,8 milioi eurokoa izango da. Kopuru horri unibertsitateari dagokion aurrekontua gehitu behar zaio, legegintzaldi honetan beste departamentu baten mende baitago (Unibertsitateena, Berrikuntzarena eta Eraldaketa Digitalarena). Beraz, konparazio homogeneoa egiteko, beharrezkoa da Hezkuntza Departamentuarentzat aurreikusitako gastuari unibertsitateei dagokien gastua gehitzea (97,6 milioi euro); beraz, hezkuntzako gastua 890,4 milioi eurokoa izango da 2022an, 2021eko gastu bateratua baino 45,4 milioi gehiago.

Gastu hori BPGaren %3,9ren baliokidea da, 2021eko parte-hartze bera. Hezkuntzako gastuak BPGarekiko 0,3 puntu egin du gora 2010etik, murrizketa handiak egin ziren urtetik alegia.

Hezkuntzako gastua (milioi euro eta BPGaren %) 2010-2022


	2010	2015	2021	2022
Miloi euro	668,1	584,5	845	890,4
% / BPG	% 3,6	% 3,1	% 3,9	% 3,9

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

Osasunak eta hezkuntzak duten gastu eskasa ikusarazteko, beharrezkoa da Europako herrialdeekin konparazio bat egitea. Eurostaten azken datua 2019koa da. Europako batez besteko osasun-gastua BPGaren %7 izan zen; Nafarroan, berriz, %5,0, bi puntu gutxiago. Beste ekonomia batzuekin alderatuz gero, aldea askoz handiagoa da. Italian, %6,8koa izan zen; Alemanian, %7,4koa; Frantzian, %8koa; eta Norvegian, %8,7koa.

Europako batez bestekoarekiko bi puntuko alde horrek 2022ko aurrekontua 456,8 milioi euro handitzea ekarriko luke, eta horrek %36,2 handituko luke osasun-aurrekontua. Alde hori askoz handiagoa izango litzateke Alemania edo Frantzia bezalako herrialdeekin alderatuz gero (548,1 eta 685,2 milioi euro gehiago, hurrenez hurren). Datu horiek erakusten dute zer urrun gauden beste ekonomia aurreratuen aldean, eta osasunerako baliabideak, are gehiago bizi dugun egoeraren ondoren, ez direla aski.


Osasun-gastua EBN, 2019 (milioi euro eta BPGaren %)



Fuente: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren, Nastaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta

Hezkuntzako gastua modu berean aztertuz gero, ondorioak antzekoak dira. 2019an, hezkuntzaren BPGarekiko pisua % 3,2koa izan zen Nafarroan; Europako batezbestekoa, berriz, % 4,7koa izan zen, 1,5 puntu gehiago. Ratioa okerragoa Irlandan bakarrik izan zen. Beste herrialde batzuk aipatzearren, Frantzian %5,3 izan zen, Belgikan, %6,2; eta Islandian, %7,1.

Europako batez bestekoarekiko 1,5 puntuko aldea berdintzeko, 342,6 milioi euro gehiago bideratuko beharko lirateke Hezkuntzara, 2022rako aurreikusitakoa baino %38,5 gehiago. Ikus dezakegunez, osasuna eta hezkuntza bezalako aurrekontu-sail garrantzitsuak txikiegiak dira inguruko beste herrialde batzuekin alderatuz gero.

Hezkuntza-gastua EBn, 2019 (milioi euro eta BPGaren %)

Fuente: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren, Nastaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta

Guztira, osasunean eta hezkuntzan European egindako batez besteko gastua berdintzeko, 2022ko Nafarroako aurrekontuak 799,4 milioi euro handiagoa izan beharko luke. Hau da, aurrekontuak %15,2 egin behar luke gora osasunean eta hezkuntzan Europako batezbestekoa berdintzeko.

2.5. Errenta Bermatuak pisua galtzen jarraitzen du LGSarekiko

Errenta Bermatuan egindako inbertsioak 2022an 96,9 milioi euro gastatzea aurreikusten du, 2021eko aurrekontu finkatua baino 2,5 milioi euro gutxiago. Eboluzioak erakusten duenez, 2010etik gizarte-prestazio horretarako gastua BPGaren %0,12tik %0,42ra igaro da.

Errenta bermatuko gastua (milioi euro eta BPGaren %) 2010-2018

2010:	2015	2021	2022
30,8	65,8	99,4	96,9
% 0,12	0,28 %	0,46 %	0,42 %

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

Hala ere, gogoan izan behar da prestazio horrek dakarren murrizketa. Aurreko prestazioa (Gizarteratzeko Errenta) ordezkatzeko Errenta Bermatua sortu zenean, LGSren erreferentzia kendu zen prestazioa kalkulatzeko oinarri gisa, eta horren ordezkari 600 euro ezarri ziren.

Horren ondorioz, azken urteetan LGSak izan duen igoerarekin, Errenta Bermatuak gero eta pisu handiagoa galtzen du. 2021ean, eguneratutako oinarritzko zenbatekoa 636,73 eurokoa izan da, eta LGS, berriz, 965 eurokoa.

3.- EH Bilduren akordioak ez du aldatzen Gobernuaren aurrekontu antisozialaren joera

3.1. Aurrekontuaren %0,25 baino ez da baldintzen aurrekontu osoa onartzearen truke

Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Podemosek) EH Bildurekin sinatutako akordioak 13,4 milioi euro bideratzen ditu EH Bilduren proposamenak finantzatzeko. 13,4 milioi euro horiek 5.273,1 milioi euroko aurrekontuaren gainean duten eragina Aurrekontu Proiektuaren %0,25 baino ez da. Bistan da kopuru hain baxu batek ezin duela inolaz ere Gobernuaren aurrekontuaren joera antisoziala aldatu. Kontuan izan behar da Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioa ez dela soilik 13,4 milioi euro horietara mugatzen, baizik eta akordioak berekin dakarrela aurrekontu osoa onartzea, besteak beste UGT, CCOO eta CENen aurrekontuen bidezko finantzaketa, azterlan honen 5. atalean zehazten den bezala.

3.2. Irakurketa autokonplazentea, errealitatearekin bat ez datorrena

Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioan arreta deitzen duen elementuetako bat laugarren puntuan dago. Puntu horretan, sinatzaileek "ingurumen-iraunkortasuneko politiken aldeko apustu argi eta irmoa" eta "politika fiskala birpentsatzeko konpromisoa" berresten dute.

ELArentzat guztiz ulertezina da EH Bilduk Nafarroako Gobernuari ingurumen-jasangarritasunaren aldeko politika aitortzea, besteak beste AHTa eraikitzen ari denean, edo politika fiskala birpentsatzeko asmoa aitortzea, legegintzaldi osoko neurri fiskal bakarria Enpresa Ondarearen gaineko Zerga ezabatzea izan denean. Ondorioz, Gobernuak ingurumen-jasangarritasunarekin eta fiskalitatea birpentsatzearekin konpromisoa duela esatea ez dator bat errealitatearekin. ELArentzat ulergaitza da autokonplazentziazko irakurketa hau, eta uste du guztiz kaltegarria dela Nafarroan gauzak errotik aldatzeko.

Nafarroako egungo egoera gizarte-eraldaketa nahi dugun erakundeontzako kezkarria izan beharko litzateke. Sei urte baino gehiago igaro dira UPN Nafarroako Jauregitik atera zenetik, eta ia ez da aldaketarik izan gai ekonomiko eta sozial erabakigarrietan. Ez Geroa Baik gidatutako aurreko koalizioarekin, ez PSN buru duen egungo Gobernuarekin ez da elite ekonomikoentzat, aberastasun handientzat eta enpresa eta erlijio lobbyentzat erroko kontrako neurri hartu. Politika fiskal berberak eta azpiegitura handien aldeko apustuak jarraitzen dute. Gainera, azken legegintzaldi honetan euskararen aurkako erasoak eta Gizarte Elkarrizketaren suspertzea gehitu behar dira. Eta hori guztia alderdi politiko bakar batek ere Nafarroako Gobernua egiten ari den politiken aurka egin gabe gertatzen ari da, Navarra Suma izan ezik, eta bistan denez, beste arrazoi batzuegatik.

3.3. Onura fiskalen azterketa

Akordioan jasotzen da Gobernuak sozietateen gaineko zergaren onura fiskalen azterketa egiteko konpromisoa hartu duela. Horri dagokionez, adierazi behar da hartutako konpromisoa azterketa egitea besterik ez dela, eta ez neurri zehatzik gauzatzea. ELAren ustez, horrelako akordioek Gobernu honek Nafarroan dugun bidegabeko fiskalitatea itzultzeko asmoa izatearen itxaropen faltsua sortzen laguntzen dute.

3.4. Madrilen egiten denaren jarraipena enplegu publikoan

Gobernuak eta EH Bilduren artean enplegu publikoaren arloan sinatutako akordioa foru lege baten bidez Madrilen onartuko den araudia egokitzera mugatzen da. Nafarroan %53ko behin-behinekotasuna dago Administrazioan, eta ELAren iritziz, Madrildik datorrenaren zain egotea, autogobernuari uko egiteaz gain, akats izugarria da, besteak beste, ez baitute birjartze-tasa kentzeko asmorik.

3.5. Kontratazio Publikorako Batzordea

Gobernuaren eta Bilduren arteko akordioan, Kontratazio Publikorako Batzordean sindikatu guztien ordezkaritza bermatzeko konpromisoa hartu da. Berriki, ELAk salatu izan du Kontratazio Publikorako Batzordetik kanpo zegoela. Hori onartezina da, eta are gehiago kontuan hartuta 2014. urtean HEL bat sustatu genuela Kontratu Publikoen Legea aldatzeko, 14.635 sinadura bilduz. Beraz, akordioan jasotako neurri honen balorazioa positiboa da.

3.6. 0-3 urteko zikloa

0-3 zikloari dagokionez, alde batetik, doakotasuna adostu da 18.000 eurotik beherako errentak dituzten familientzat. Konpromiso hau ziklo honen doakotasunean urrats bat da.

Bestetik, lan-baldintzetan “funtsezko hobekuntza” eta “ratioak jaisteko aurreikuspena” egiteko konpromisoak nabarmentzen dira. Konpromiso horiek ez dute inolako zehaztasunik, eta, beraz, konpromisoak baino asmo-adierazpena dira gehiago. Are gehiago, gogoratu behar da 2021eko aurrekontu-akordioan jasota zegoela 0-3 zikloan lan-baldintzen hobekuntza, eta ratioen hobekuntza ere aipatzen zela.

3.7. Pentsioak jasotzen dituzten pertsonen babes soziala

Pentsioak jasotzen dituzten pertsonen “hilean 800 euroko zenbatekoak bermatzeko” konpromisoa jasotzen du akordioak. Eskura dagoen informazioarekin zaila da neurriaren aplikazioa eta benetako eragina aurreikustea, zeren, besteak beste, ez baita osagarri edo prestazio ekonomikoa, neurri fiskala baizik. Neurri positiboa da, baino gutxieneko 1.080 euroko pentsioen aldarrikapenetik urrun dago nolana ere.

3.8. Euskara sustatzeko laguntzak

Akordioan euskara sustatzeko hainbat partida sartzen dira (komunikabideetan presentzia handiagoa izateko laguntzak, helduen irakaskuntza...). Elementu positiboak dira, baina ezin dugu ahaztu PSN buru duen Gobernu honi esker funtzio publikoan sartzeko orduan euskara UPNren garaian baino okerrago tratatzen ari dela. 2019an Euskararen Dekretua indargabetu zenetik, egungo gobernuak ez du besterik onartu, eta euskararen ezagutza ez da baloratzen ez eremu mistoan, ez zerbitzu zentraletan, ez eremu ez-euskaldunean. Ez Geroa Bai Gobernu barrutik, ez EH Bildu kanpoko babesarekin, ez dira gai izan PSNri presioa egiteko anomalia horrekin amai dezan.

4.- Erreforma fiskalari uko egiten zaio, eta horrek murrizketak ekarriko ditu.

ELarentzat oso albiste txarra da zerga-erreforma egiteari uko egitea, enpresek beren mozkinengatik, kapitalagatik, ondarengatik eta errenta altuengatik ordaintzen dituzten zergak gehituz diru-bilketaren ahalmena nabarmen handituko duena. Gaur egun, Nafarroak fiskalitate eskasa du (EBko batez bestekoa baino 1.675 milioi euro gutxiago biltzen dira), bidegabea da (zuzeneko zergen bidez jasotzen diren 10 eurotik 7 laneko errentak dira) eta permisiboa da enpresen eta enpresa- eta kapital-errenten zerga-iruzurrarekin. Duela sei urte atara zen UPN Nafarroako Jauregitik, eta, egia esan, fiskalitateak ia berdina izaten jarraitzen du.

Aurrekontua defizitari esker koadratzen da, hau da, zorra handituz. Zor publikoaren igoera horrekin batera erreforma fiskalik egiten ez bada, murrizketak itzuli egingo dira. Diru-bilketa Nafarroako Gobernuaren esku dago, horretarako borondate politikoa besterik ez da behar.

5.- UGT, CCOO eta CEN diru publikoz finantzatzea jasotzen duen aurrekontua

2022ko aurrekontu-proiektuak 2021-2024 Enplegu Planarekin lotutako partida ugari biltzen ditu, eta diru gehiago ekarriko die UGTri, CCOOri eta CENi. Hiru erakunde horien aurrekontuen bidezko finantzaketa ez zen gertatzen UPN Nafarroako Gobernutik atara zenetik. EH Bilduk aurrekontuen bidezko elkarrizketa sozialaren finantzaketa onartzea atzerapauso nabarmena da, eta ELAren iritziz, posizio politikoa galtzea dakar.

Plan horrek, Nafarroan egin diren Enplegu Plan guztiek bezala, diagnostiko autokonplazientea du ezaugarri, enpleguaren benetako arazoei heltzen ez diena, aurreko Planek ekarri duten diru publikoaren xahutzea alde batera uzten duena, eta elkarrizketa sozialaren ustezko ontasunen etengabeko laudorioa da. Plan hori orokortasunez eta zehaztugabetasunez beteta dago, eta ez du adierazlerik betetzen den edo ez ebaluatzeko.

2022ko Aurrekontuak ematen dio finantzaketa Enplegu Planari. Plana indarrean egongo den lau urteetan 700 milioi euro baino gehiago kudeatuko dituen Plana delako propaganda egin dute Planaren sinatzaileek; horietatik 185,6 milioi 2022koak dira.

Enplegu Planean sartzen diren aurrekontu-partida ugarien artean, gehienak Administrazio Publikoak lehendik egiten zituen politiken kudeaketari dagozkio, eta orain Enplegu Planean sartzen dira, sinatzaileak kudeaketa publikoko botere-kuotak bere gain hartuz. Hau da, plan horrek politika publikoak pribatizatzea dakar, hala nola genero-ekitatea, laneko ezbehar-tasa, enplegu-politika aktiboak edo enpresei ematen zaizkien diru-laguntza jakin batzuk.

Horretaz gain, UGT, CCOO eta CEN finantzatzeko beste partida batzuk ere badaude. Horixe gertatzen da, adibidez, Prebentzioko Lurralde Ordezkararen figura berreskuratzearekin (400.000 euro 2022an). Figura hori ezabatu egin zen hitzarmenen eskandaluarekin, eta 10 milioi euro baino gehiago esleitu zitzaizkien UGT, CCOO eta CENi 2008tik, eta ez dago jasota lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak murrizteko duen eraginkortasunari buruzko adierazlerik.

UGT, CCOO eta CEN finantzatzeko partidak, aurrekontuen aurreproiektuan sartuak

Kontu-saila	€
Nafarroako Enplegu Plan Bereziaren kudeaketa	18.000
PE enpresa osasuntsuaren bi urteko biltzarra	30.000
PE Enplegu Planaren ondoriozko ekintzak	100.000
PE lanaldiaren egokitzapena errazten duten enpresentzako pizgarriak ezartzeko azterketa	18.500
PE berdintasunerako planak ezartzeko prozesuan hobekuntzak aztertu eta proposatzeko ekintzak	6.000
PE berdintasun planen arloan araudia betetzeko sentsibilizazio kanpainak	18.150
Laguntza autonomoak, belaunaldi-aldaketarako PE	100.000
LAPeko lankidetzak proiektuak: PEko lurralde-ordezkaria	400.000
PE Berdintasun eta Adiskidetze Proiektuak	175.000
Ekintza sindikala laneko arriskuen prebentzioan PE	400.000
Deialdia, PEko ordezkaria-berdintasunerako agentea	300.000
Gizarte- eta enpresa-eragileen transferentzia partaidetzagatik	60.010
Guztira	1.625.660

Iturria: Nafarroako Gobernua

Gainera, CENentzako eta Nafarroako Enpresaburu Gazteen Elkarterako 712.000 euroko beste kontusail batzuk biltzen dira, inoiz ordezkaritzarik egiaztatu ez duten enpresa elkarteak direnean.

6.- Aurrekontuen Lege Proiektuak Guardia Zibilak Foruzaingoan sartzeko pasabidea aurreikusten du

Aurrekontuen Lege Proiektuaren Hemezortzigarren Xedapen Gehigarriak jasotzen duenez, *“Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Transferentzia Batzordeak zehazten dituen funtzionarioak eta/edo lan-kontratuko langileak Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan sar ditzan, trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko erabakiaren bidez”*.

Xedapen hori Nafarroako Poliziei buruzko 2018ko Legearen garapenaren barruan kokatzen da. Lege hori UPN, Geroa Bai eta EH Bilduren aldeko botoekin onartu zen, eta ELAk ez zuen babestu. Foru lege horren bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusten da Guardia Zibileko kideak Foruzaingoan sartzea.

Aurrekontuen Lege Proiektuak Guardia Zibilaren integrazioa ahalbidetzeaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileei aplikatu beharreko ordainsari-araudiaren gainetik jasotzen zituzten soldata-osagarriak ere ordainduko zaizkie.

ELAk beti aldarrikatu du Foruzaingoak bere gain hartu behar duela Trafikoko eskumena. Eskumen hori eskuratzeak berekin ekarri behar du Foruzaingoaren plantilla handitzea, eta prozesu horrekin batera, beste polizia-indar batzuen presentzia murriztu behar da. Horretarako, beharrezkoa da LEP

bat deitzea, eta bertan ez dute lehentasuna izan behar Guardia Zibila bezalako izaera militarreko kidegoetako kideek.

7.- 800 plaza itundu gehiago egoitzetan eta eguneko zentroetan

Nafarroako Gobernuak iragarri du 800 plaza gehiago itundu nahi dituela adinekoen, mendekotasuna dutenen eta ezgaitasuna dutenen egoitzetan eta eguneko zentroetan. Gizarte Eskubideen Departamentuaren aurrekontu programaren deskribapenaren arabera, "zerbitzuen kontzertazioa handitu nahi da (egoitzako plazak, eguneko arreta) esparru guztietan (adinekoak, ezgaitasuna eta buruko eritasuna).

Argi dago Administrazioak plaza gehiago eskaini behar dituela egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan, baina hori arazoaren zati bat baino ez da.

Hasteko, zalantzan jarri behar da ea plazen gehikuntza hori nahikoa den dauden beharrei erantzuteko. Baina, batez ere, agortuta dagoen zaintza-eredu bat zalantzan jarri behar da, eta mugak inoiz baino argiago erakutsi dituen pandemia. Nafarroako Gobernuak 800 plaza gehiago sortu nahi baditu zainketen eredua aldatu gabe eta langileen baldintza eskasak kontuan hartuta, ez du zainketen sektorearen benetako arazoa konponduko. Zaintzaren sektoreko profesionalen lan-baldintzak hobetzea ezinbestekoa da zaindu beharreko pertsonen arreta duina eta integrala izan dezaten. Gaur egun, Nafarroako 70 zentro baino gehiago (adinekoentzako egoitzak eta eguneko zentroak) estatu mailako lan-hitzarmen batek arautzen ditu.

ELAk zainketa-eredu profesionalizatu publiko, duin, unibertsal eta doakoaren aldeko apustua egiten du. Zaintza profesionalizatu gehienak pribatizatuta edo merkantilizatuta daude, enpresa pribatuen eta putre-funtsen esku, eta horiek lehentasuna ematen diote etekin ekonomikoari pertsonen zaintzaren gainetik. Bide horretan ezinbestekoa da Nafarroako Egoitzen Hitzarmena sortzea.

8.- Ondorioak

- 1. Austeritate politikak, zorrak eta Europako funtsek baldintzatutako aurrekontua.** Austeritate politika mugatzeari (Nafarroako Gobernuak horri heltzen dio Europar Batasunak zerga-arauak etenda dituenean ere) gehitu behar zaio zor publikoaren ordainketa eta itzaleko bidesariak 200 milioi igo direla azken urtean. Bestalde, Europako funtsak proiektu jakin batzuetara baino ezin dira bideratu, eta murrizketa sozialen baldintzapean daude.
- 2. Zerga-erreforma bati uko egiteak murrizketak ekarriko ditu.** Nafarroako Gobernuak behin eta berriz errepikatzen du ez diela zerga-karga igoko Estatu osoko sozietateen gaineko zergaren presio fiskal txikiena duten enpresei. Aurrekontua defizitan oinarritzen da, hau da, zorra handitzean. Zor publikoa handitzearekin batera zerga-erreforma bat egiten ez bada, zerga-bilketa areagotuko duena, eta, batez ere, enpresei, enpresa-errentei eta kapitalari presio fiskala areagotuko zaiena, murrizketak itzuliko dira.
- 3. EH Bildurekin lortutako akordioak ez du Gobernuaren proposamenaren norabide antisoziala aldatzen.** Beharrezkoa da oposizioa lantzen duen ezker instituzional bat, aurrekontu- eta zerga-politikak errotik eraldatzea defendatzen dugun indar sindikal eta sozialentzat aliatua izango dena. Ezkerraren zeregina ezin da mugatu gizartearen aurkako aurrekontuak makillatzea, aurrekontuak ez baitira onak sinatzen dituenaren arabera, edukiaren arabera baizik.

- 4. UGT, CCOO eta CEN diru publikoz finantzatzea berreskurtatzen duten aurrekontuak.**
Aurrekontu hauek Sanzen eta Barcinaren gobernuen jardunbideetara itzultzea dakarte, hiru erakunde horiek bake sozialaren eta politikari laguntzearen truke finantzatu.
- 5. Guardia Zibilak Foruzaingoan sartzeko pasabidea aurreikusten duen aurrekontua.**
ELAren iritziz, Guardia Zibila bezalako izaera militarreko kidegoetako kideek ez dute lehentasuna izan behar.
- 6. Partaidetza sozialik eta sindikalik gabe.** 2022rako aurrekontu-proiektua inolako gizarte-partaidetzarik gabe egin da, eta erakunde sozial eta sindikalak aurrekontu-politikaren erabaki-eremutik kanpo uzteak kalitatea eta maila demokratikoa apaldu besterik ez du egiten.
- 7. Osasunera bideratzen den BPGren ehunekoa murriztu egin da.** Lehen mailako arretaren saturazioak, itxaron-zerrenden egoerak edo arreta psikologikoko espezialisten faltak Nafarroako Gobernuari osasun-gastua handitzea eragin beharko lioke, Europar Batasuneko batez bestekotik bereizten gaituzten 456,8 milioi euroak murrizteko.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA